

NAFARROAKO IKASTOLAZ ZENBAIT GOGOETA

Ikastolen urratsak Nafarroan

Noizbait, eta hontan ez da zalantzarik, jende mordo batek, ez handiak, hasiera eman zion Nafarroan Ikastola sortzeko mugimenduari: 1969.aren inguruan lehen ikastolak sortzen ziren Iruñea, Sakana, Baztan eta Lizarra aldean. Mugimendu hau eragin zutenek, zail da jakitea zenbaterainoko pentsa zezaketen hasiera horren ondorioak, zein da nolakoak izan zitezkeen. Zalantzarik ez da, baieztatzear, oinarri haietan pertsona eratzaile hoiengan artean egon zitezkeen helburua: Euskara bere heriotz lozorro hartatik esnatu, eta kalera itzul zedin ahaleginak egin.

Zeregin hontan, eta ikastola gehienak jasan behar zituzten oztopoak azaltzen ez ditugunez, bestaldekorik Nafarroan ere izan zela esan beharra daukagu. Gure Nafarroan, txapelgorria eta foruak nahasten diren herrialde hontan, euskara museorako zaindu beharrezko euskararen aldeko nolabaiteko zaletasuna bazuela Diputazioak esan beharra daukagu. Diputazioaren inguruan, lehen euskal jaiak antolatu ziren 1958/59. urte ingurutan. Aitagurea eta Agur Mariak zekizkienei Aurrezki Kutxan kartila irekitzen zioten berrogei duruko batekin eta agiri bat ematen baita. Hemendik, geroz, ikastola ernatu zen eta geldi-geldi gaurko goerara iritxi da.

Bainan azken urte hontan, hedatu denez ikastola mugimendua batez ere, egungo egoera honetan bizi den bidegurutzea azaltzea izanen da lan honen helburu nagusia. Eta hau justifikatzeko, bada, azken urte hauetan ikastolen handitzea ekartzen dugu honera: 1977/78. ikasturtean 32 ikastolatan 3.000 haur zeuden matrikulatuak: irakasleagoa 96 irakaslek osatzen zuten, hauetatik 46 titulugabeak. Datu hauek biltzen dituen lehen estudioa, osatu berria zen Nafarroako Ikastolen Elkartek landu zuen.

Gaurkotuz datu hoeik, 1984/85. urtean 46 ikastolatan 6.883 haur daude matrikulatuak eskolaurretik hasi eta BUP bitartean, irakasleagoa danetara 292-ra heltzen delarik.

1977. urtean, Diputazioaren ikastolaren aurka doan lehen erasoaldia gertatzen da. Une hontan, sortzen da ikastolen Elkartea, Diputazioaren erasoei erantzuteko asmoz. Geroztik, Nafarroako ikastola denak Elkartea osatzen dute, erakunde ordezkari eta eragile izan dadin nahi delarik.

Egungo demokrazi eta horren aurre igarotako alditan, eguneroko zeregin bihurtu zen Elkartearentzat, ikastolen alde ahal zen ondoriorik hoberena lortzea. Egia esan, zeregin hori, sail larrienak osatu edo bete du, eta diru iturriak lortzen, zihurtatzen, eta hobetzea, izan da helburu nagusienetakoa. Gaurko unean, diru arazoa aztertzen badugu, berau finkatzen ari dela dirudiela esan daiteke. Nafarroako Forudun Diputazioa, Alderdi sozialistaren gobernuak, lehen aldiz ikastolen tratamendu ekonomikoa irakaskintza pribatuarekin parekatu du. Honela, jasotzen den dirua hauxe dugu: O.H.O.ko gela bakoitzak 1.886.070 pza. eta Eskolaurrekoak 550.000. B.B.P.k ez du laguntza zihurrik, urtean urteko borrokari ekin beharra izaten delarik oraindik orain. Datu hauek 1984. urtekoak dira.

Ikastolaren eragina

Ikastolaren eragina, ez da bere ingurura mugatzen. Azken zazpi urte hauetan, euskararekiko jarreraren aldaketan zerikusi

handia duela ikastolak ezin inork ukatu.

Gogoan ditugu 1976. urtean oraindik, euskaraz mintzatzeagatik Beteluko eskolan ikasle batek jasotako gaztigua. Gaur egun, aldi hortan euskararen aurka zitezkeenak vaskozaleak agertzen zaizkigu: beste batzuk aurrerago jo dute eta euskaltzale moduan egartzen zaizkigu.

Aldaketa hau aztertzerakoan bi fenomeno kontutan hartu behar dira: bata, gizartea berez, euskaltzaleagoa bihurtu dela, gehiago ulertzen eta beraz onartzen du bere jatorri euskalduna. Bestalde, ikastolak, irakaskintza estatalean printzaren lana eta eragina izan du, bertako sektoreek leku egin beharrean aurkitu direlarik: batzuk, irakaskintza aske eta eragilea eratu nahi hortan, haur euskaldunen nortasuna errespetatzeko ikasi beharrean aurkitu dira eta euskal irakaskintza bere egin dute.

Besteak, lanpostuaren beharra dela eta, eskoletako eskariak kontutan hartu dituzte, eta bertan profesionalki aritzeko euskarazko bideak urratzeari ekin diote. Eta honela, urte batzutan eskola nazionaletako gela elebidunak edonon sortzeari ekin diote, guraso eta irakasleek osotutako talde zenbaitek. Administrazioaren erantzuna oso ezberdina izan da. Ezberdina batzutan, plangintza gabea ia beti eta eskarien atzetik dijoana beti. Orain dela hiru urte sortutako 50 irakasle elebidunak, euskararen aurka egon zitezkeen giroa birmoldatzetik at, ezer gutxi egin dutela herrietako eskoletan esan daiteke. Izan ere euskara irakasteko 500 edo 1.000 ikasle dituen eskola batetan pertsona bakarra jar-tzeak ez lezake beste zentzurik eduki. Gaur egun 50.ko kopurua (irakaslego hōri) 70 arte handitu bada ere egoera eta funtzio berdinak betetzen jarraitzen du.

Eskola Nazionalekin pultsoa

Ikastolaren etengabeko bideak, hau finkatzera eraman du zenbait herrietan. Kontutan badugu, Nafarroan bailarako hiri-buru papera egiten duen herrian eskualde osoko haurrak biltzen dituen eskola dagoela, konzentrazio hauetako kopuruak handietakoa dira. Bainan, eta euskaldun giroa sendo mantentzen

den herrietan, batez ere ikastola zabaltzen eta handitzen joan da, bi problema larri sortuaz. Bata, ikastola ikastetxe egokirik gabe aurkitzearena; bestea eskolan, ikastetxe egokia, gela erdi hutsak eta irakaslegoa erruz, bada ere, haur gitxi dituzte, hontatik era askotako prolemak sortuz.

Hemendik sortu da ikastetxe (publiko?) hauetako irakasle-goaren reziklatu beharra. Euskara ikasi, linea elebiduna sortzeko. Honela, herri batzutan jadanik (eta pribatua dagoenetan kontutan hartu gabe) hiru irakaskintza saila ditugu: ikastola, eskolako erderakoa eta euskarazkoa baita. Ondorioa, gelatako kopuruak oraindik gehiago jexi direla eta neurriren bat hartu beharra dagoela.

Ikastola horrenbeste urtez, horrenbeste lan egin da gero finkatzera doan ikastola, ez litzake zuzena desagertzera behartuko balitzake: hau da behintzat guraso askoren iritzia. Desagertu, eta hain aurkako izan den eskola estatularen eskuetan utzi urtetan egindako lana, beste garantiarik gabe? Ikastola publikoa aldarrikatzen den unean, eskola nazionalarekin bat egitea ulertzen ahal da publiko bihurtzea? Ikastola sortzez da herritarra, herriak sortua baita.

Edo ta, herrietan bi komunitate sortzeko bildurrez bagara, teilatu baten azpian bi bideak eramateak konpondu ote dezake arazoa?

Guztiaren aurrean, zalantza hontan dauden lau-bost ikastolak (Elizondo, Bera, Etxarri Aranaz, Lesaka...) eskola nazionala egun desagertzera eramán dezakete horrenbeste herrietan. Ez dira desagertuko, gela bakoitzean haur bat daukaten bitartean, baina, egoera honi itzulía emateko ahaleginetan dabiltzala, maistru, administrazio eta bertako guraso asko ezin ukatu.

Nafarroako ikastola mordo bat bestalde, eskolaurre hutsak dira. Haurtzaindegia eta Eskolaurrea bitartean haurrak hartzen ditu, gero eskolara pasatzeko. Orain arte aipatutakoa kontutan artuz, on litzake Administrazioak elebidun irakaskintza herri batzuetan sartu nahi duen bezala, ikastola hauek kokatzen diren

herriak kontutan hartuko balitu. Zortzi edo hamar urteren bu-
ruan, euskarak egun galduak dituen herri eta eskualde zenbait
berreskuratuko lituzke. Eskualde hauetako haur kopuruak (gu-
txi) plangintza on eta egokia posibilitatzen du. Ez ahaztu, Nafa-
rroan oraindik orain euskalduntzat jo dezakegun Eskualdeetan
eskolatuak edo eskolarako adina duen biztanlegoa ez dela sei
milatik pasatzen: Beraz egun ikastolatan matrikulatua dagoen
baino ikasle gutxiago.

Ez da alperrikoa edo oinarri gabea, ikastola inguruan dabi-
len jendearen mesfidantza administrazioak agintzen dituen neu-
rri partzial batzuen aurrean. Neurri egokiak izateko euskara ber-
riztu eta mantentzeko borondate osoa erakutsi behar da, arazoa-
ri ekiteko ez lau edo bost herrietan, Nafarroako eskualde eus-
kaldunetan, edo ta, gutxienez, ikastola iritxi dan alderdi guztie-
tara (zabalago da) eta azkenik Nafarroa Osora.

Eskolaurrea

84/85. Ikasturte hasieran, Eskolaurreko Ikastolen egoerara gertutzen

IKASTOLA	GELAK	IKASTOLA	GELAK
ARANAZ	1	JAUN SARAS	1
ETXALAR	1	ULTZAMA	1
IGANTZI	1	BARAÑAIN	2
GOIZUETA	1	PUENTE	2
BURGETE	1	EUGI	1
ESPINAL	1	SANGUESA	2
AOIZ	2	LUMBIER	1
OTXAGABIA	1	BIANA	2
JAURREJETA	1	SUMBILLA	1
DIKASTILLO	1	DONEZTEBE	1
IRURZUN	2	BURLADA	1
LEKUNBERRI	1		

Lehen aldiz irekiko diren gela berriak

BERRIOZAR	1	TUTERA	1
BURLADA	1	ZIZUR	1

(4)

DANETARA 33

Eskolaurrea eta O.H.O. duten Ikastolak

IKASTOLAK	IKASTOLAK
BERA BIDASOA	ARBIZU
LESAKA	LAKUNTZA
LEITZA	HUARTE ARAKIL
ELIZONDO	SAN FERMIN Eta BUPeko 6 gela
ESTELLA	PAZ ZIGANDA
OLAZTI	I UDAL IKASTOLA
ALTSASU	FRANCISCO JASO
URDIAIN	HERRI IKASTOLA
BAKAIKOA	BILLABAKO MUNIC.
ETXARRI ARANAZ	TAFALLA

Diputazioa eta alderdi politikoen kontraesanak

Nafar Amejoramendua, onartu zela jadanik bada hiru edo lau urte: oraindik ordea, euskarari buruz zerbait dioten artikulak berean diraute.

Artículo 9

1. El castellano es la lengua oficial de Navarra.
2. El vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra.

Una ley foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua.

6. artikulua (Autonomi Estatutoak)

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio lingüistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute; beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholkumale.

5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahaliko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itaunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzada din.

Ezberdintasuna nabaria da, ikus daitekeen bezala: bainan oraindik Nafarroan, ez da euskararen legerik, ez kriteriorik eta ez plangintzarik. Nafarroako Alderdi sozialistak, irakaskintza publikoa aldarrikatzen du, eta beraz, ikastola publikoa teoriantz bederen, bere politikan sartu behar litzake. Lehenago esan da ikastola mugimenduaren dinamikak sortu duen ondorioak eskola nazionalerako kopuru eta egoera krak egitera eramane du. Kopuru gutxiko gelak, zail egiten du ikastetxe ofizial hauen egoera (ala ta guztiz ere, ikastolak baino irmoago diraute). Hutsik diren gelak, ikastola bete-bete hauek erabili nahiean hasten direnean ordea, Administrazioa, Asociación de padres deituak, irakasle kraustroetako parte bat, eta abar luzea, bat datoz ikastolaren hedatze honi aurpegi emateko.

Bitartean, PSOE.k hiru herrialdeetan (Euskadin?) euskal eskola publikorako bide bakarra eskatzen du oposiziotik. Komunitate biren arteko banaketa areagotuko duela eta, EIKE gaitzes-

ten du, horren ordez eskola sare bakarra eskatuz. Ixkanbila hoietatik at egia esan ez dira gelditzen zenbait erakunde abertzale eta ezkertiar. Bakoitzak bere arrazoerak ditu horrela jokatzeko, baina PSOEk euskal herriagan sinisten ez duenez ez diogu behar bada lojika gehiegi exijitzen, nahiz jokaera berdina eskatu, hemen bai, alderdi abertzaleei. Baina, gaur PSOE.k zentratuz, Nafarroan proposatzen ari dena azaldu nahi da, ondorean, bakoitzak bere konklusioak nahi duen eran atera ditzan. Eta harira joaz, Nafarroako PSOE.k hara non eta nondik, naberkeriz betea dagoen Amejoramentuaren 9. artikulua euskara ofizialtzat izateko urratsak hedatzen omen dituenean ikastolentzat, Nafarroako Ikastolen funtzionamendu erregulatzeko EIKE nafarra sortuko omen du.

Jakina, ez EAJ.k egin duen bezala, inkonstituzionala baita: horrela Nafarroako PSOE.k aterako duena konstituzio espainolaren barruan sartuko da: baita LODE-ren artikuladuan ere, legedi horren zentru kontzertatuen barruan sartuko baita. Nonbait ez da berdina oposizioan egon edo ta agintea eduki Nafarroan duen bezala.

Edonork pentsa dezake, nahiz azaldutakoa aurrera eramanez, beste bide publikoren bat eskainitakoaren bigarren atala izan daitekeela. Ez ordea horrela; Nafarroako ikastolak ez dute sare publikoan sartzeko aukerarik eukiko, eta hiru dira hemengo alderdiak emandako arrazoiak: irakaslegoa onartzen ez dutelako (oposiziorik gabe), eskaintza publikoa badagoelako nahi duenak eskoletako gela elebidunetara haurrak bidali ditzan, eta azkenak, diskriminaziorik sortu nahi ez dutelako elebitasunarekin (?).

Luze litzake hiru puntu hauek aztertzea, baina legalki hedatzeko tresnarik ez duen hizkuntza bat, nekez handitu eta indartu daiteke zaintzen ez den lurraldean. Adibidez, alternatiba edo eskaintza elebiduna zenbait herrietan bada: beste batzuetan ez. Ikastolarik ez den batzuetan bada, presio bidez lortua gehienetan, baina bultzatu eta kosta ala kosta sortu nahi diren herrietan kasualitatez nonbait ikastolak zalantzan jartzen du eskola na-

zionalaren izatea. Nafarroako gobernuak berriro bereganatu nahi du herri hoietako irakaskintzaren kontrola. Neurri handi batean, euskararenganako inoiz erakutsi ez duen zaletasuna egun batetik bestera pizteak, zalantzak sortzen ditu ikastola inguruan dabilen jendearengan. Horrenbeste urtez, garai zail eta ilun haie-tan guraso eta beste askoren laguntzarekin sortutako ikastolak, ezin utzi daitezke euskararekiko zaletasuna orain dela hiru egun ernatu zaion erakunde eskola eta alderdi batetan.

Eta ez dadila berau justifikatu, euskaldunon artean borroka sortuaz bi kontzepturen artean: ikastola publikorako biderik ez da ireki nahi: eta legalki status hori lortu ez badezakete ikastolak, sortzez, nahiaz, eta herrikoitasunez Euskal Herriko euskal eskola publikotzat hartu behar ditugu. Gainerantzekoa, egungo erreali-tatean kôkaturik ez gaudela adieraziko luke, ez bai du zentzurik herrietako ikastolaz eta abar aritzea, zalantzan jarriaz egingo eta egiten ari diren lan euskaldun eta herritarra.

Alderdi abertzaleen konpromisoa ezin gutxietsi daiteke: inoiz baino gehiago une honetan, etxekoen laguntza, oniritzia eta bultzada ezinbestekoak gertatzen dira.

Bidegurutzean

Azaldutako guztia kontutan harturik, ikastolak gaur norae-zean aurkitzen direla baieztatu dezakegu. Diputazioaren propo-samena bide elebidunean sartzeko bideari ekinez, besterik ezean, horra bultzatzen dituenek, diru laguntza exkaxiak, ikastetxe ezak, legalizazio beharrak eta publiko izan nahi polemiko ho-rrek, une larrian jartzen ditu. Bestalde, nork zihurtatzen du, gaurko soluzio ofiziala, bihar erhailtzeko lehen pausua ez den izanen. Honen aurrean, egoerak, sakonki aztertzea eskatzen du, hartzen den bidea egokiena izan dadin: eta azken hitza, gurasoe-na izan behar luke, heurak bai dira, irakaskintza euskaldun, eta herritarra lortzea posible egin duten eguneroko militanteak.

Federazioaren jarrera

Ikastolen Elkarteak, ikastola guztiek osatzen duten erakun-

dea denez, ikastolak markatzen duten ildotik joanen da. Egia da, gaur, eta une puntual askotan, ikastolen aurretik jartzen den erakundea ote deneko itxura ematen duela: itxura besterik ez du izan nahi, zeren Elkartean ikastola guztien arazoak biltzen direnez, honek planteimendu orokorrak egiteko egoeran jartzen baitu. Beharrezkoa da, Erakunde hau Nafarroan, irakaskintzaren plangintza egiten denean, ikastolen eta harago joanaz euskal irakaskintza osoaren planteiamenduak balia araziko dituen erakundean bihurtu dadin.

Elkarteak, inoiz zentzurik izan badu, gaurko egunean, bizi-rik eta dinamikoa den erakundea izatean datza.

Juan Luis Larraza
Nafarroako Ikastolen Elkartea'ren Idazkaria